

Txillardegi guztiak hizpide

Idazleak literaturan eta euskalgintzan egindako lana aztertuko dute urriaren 4tik 6ra, Koldo Mitxelena antolatutako jardunaldietan

MARIANTONIA ARTANO - DONOSTIA

«Txillardegiren obraren aniztasunaren berri ematea da helburua, landu dituen arlo gehienak besarkatzen saiatuz». Horretarako antolatu dituzte, *Txillardegi. Egilea, hitzaren zentzu guztietan* izeneko jardunaldiak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean urriaren 4tik 6ra. Txillardegik bide asko urratu dituela eta ekarpen guztiak «bulgaritzatzeko» aukera dela adierazi du Ur Apalategik, jardunaldietako koordinatzaileak.

«Euskaraz idazten duen ororentzat Txillardegi funtsezko pertsonaia delako» ohoretzat dauka Ur apalategik jardunaldi hauek antolatzea; bere ustez, gaurko euskarazko literaturaren garapen mailara iristeko Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegiren nobelagintzak* izugarriko garrantzia izan du: «50eko hamarkada ilun hartan literatura moldeak hausiz berpiztu zuenetako bat da». Gainera, erakunde publiko batek Txillardegi aldarrikatzea oso garrantzitsua iruditzen zaiola esan du, izan ere, Txillardegik egindako lana gizarteren ondasuna dela uste du.

Jardunaldien protagonistak berak, Txillardegik «oso gustura» hartu du proposamena. Hasieran harritu egin bazen ere, Apalategik argitu duenez, hitzaldiak antolatzen eta lagundu du.

• Egitaraua

Astelehena 4

19:30: Txillardegiren nobelagintza jorratuko dute Jesus Mari Lasagabasterrek, Pruden Gartzia eta Markos Zapiainek.

Asteartea 5

19:30: Txillardegik euskalgintzan gaiaz mintzatuko dira, Maria Jose Azurmendi, Gotzon Aurrekoetxea eta Jose Luis Ormaetxea, Txipi.

Asteazkena 6

19:30: 'Literatura eta iraultza' antzezlan eta mahaingurua; Mahainguruan, Itxaro Borda, Laura Mintegi eta Juanjo Olsagarre. Moderatzailea: Ur Apalategi.


Astelehenean izango da lehen-go hitzaldia, eta bertan, Txillardegik euskal eleberrigintzari egindako ekarpena azalduko du Jesus Mari Lasagabaster literatura kritikoak. Aspalditik landu du Lasagabasterrek Txillardegiren lana, lehenetako izan zen Ur Apalategik jakinarazi duenez. «Euskal eleberrigintza modernoaren aitzindari bat, euskal kritikagintza modernoaren aitzindariak komentatuko du».

Pruden Gartzia, euskaltzaindiako bibliotekako zuzendariak, hartuko du hitza ondoren, betiere arlo literarioaren ildotik, eguneko gaiari eutsiz. Pruden Gartzia protagonistaren nobelagintza jorratuko du *Kundera etorri duk hitaz galdezka* hitzaldian. Apalategiren hitzetan, «orain arte inork egin ez duen bezala jorratuko du gaia, eta hau izango da hitzaldirik originalena», izan ere, Txillardegi eta Milan Kundera idazle txekiarrak alderatzen saiatuko da Gartzia.

Hirugarren hizlaria Markos Zapiain idazlea izango da, honek, Txillardegiren nobelagintzaren eduki filosofikoa aztertuko du bere artean.

Euskalgintzan eginiko lana

Asteartean Txillardegik euskalgintzan gaiaren gainean ariko dira Maria Jose Azurmendi, Gotzon Aurrekoetxea eta Jose Luis Ormaetxea, Txipi EHUKO irakasleak. Azurmendik Txillardegiren lan soziolinguistikoa izango du hizpide; Aurrekoetxeak Txillardegik euskara batuaren osaketan izan zuen rola; eta Txipi,



TXILLARDEGI idazle eta euskaltzalea. (J. URIBE/FARSAGO/PRESS)

euskararen aldeko borroka tratatuko du.

Bereziana asteazkeneko saioa izango da, 1985eko gertaera literario famatu batetik abiatuko baitira: Garai horretan Atxaga eta Txillardegik elkartu ziren bi belaunaldi literario ezberdinetako ordezkari gisa literaturaren eta iraultzaren gainean eztabaidatzeko. «Oso modu nabarmenean kontrajartzen ziren bataren zein bestearen iritziak. Txillardegik Sartrrean postura hartzen zuen: idazlearen ardura soziala eta idazleak konprometitu behar zuelako iritzia. Eta Atxagak, Roland Barthesen konpromisoaren bertsioa defendatzen zuen: literatura konprometitua bai, baina, ez bortxaz». Apalategik argitu duenez.

Eztabaida honetatik abiatuz, 20 urte geroago eztabaida birplanteatuko dute. Horretarako, konpromisoaren galderarekin

zerikusia izan duten hiru idazle mahaingurua osatuko dute: Itxaro Bordak, Laura Mintegi eta Juanjo Olsagarrek. Apalategi izango da moderatzailea.

Mahai-ingurua baino lehen, *Literatura eta iraultza* izeneko antzerki lana eskainiko dute Berako Lamixine antzerki taldeko aktoreek.

ZINEA

'Alien vs predator' filmarekin bukatuko da beldurrezko zine astea Donostian

ERREDAKZIOA - DONOSTIA


Alien vs Predator filmarekin bukatuko da, azaroaren 6an, Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren XV. Astea. Jaialdia urriaren 30ean hasi eta zazpi egunetara amaituko da Kursalean, aipatutako pelikula estatubatuarren estreinaldiarekin.

Gaur egungo zinema fantastikoko bi izaki, Alien eta Depredator, aurrez aurre jarriko dira. Zientzialari talde batek, Charles Bishop Weyland (Lance Henriksen) buru duela, antzinako piramide baten hondarrak aurkituko ditu Antartidan. Han, elkarren kontra ari diren izaki alienigenen bi arraza ikusiko dituzte: alienak eta harrapariak.

Ridley Scotten 1979ko *The eighth passenger* filmean agertu zen lehen aldiz zinemaren historiako estralurtarrik ospetsuenetako. 1987an, berri, John McTiernanek *Predator* filmean beste izaki estralurtar famatu bat sortu zuen. Kursalean aurkeztuko duten filmak bi arraza alienigena hauek batuko ditu.

Paul W.S. Anderson da zuzendaria, fantasiako zinean lau film agin ditujada, eta hau du azkena.

HONDARRIBIA



ARTE AZOKA

Gipuzkoa Plaza

Urriak 3

BROKANTE ETA BILDUMA

Jostaldi Frontoia

Hondarribiko Udala
Kultura Saila



Hondarribiko Udala

EGILEA
URRIAR 4
SATISFEGITAB.
ALGORIA
ERAKUSKETA